DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Idazkaritza nagusia
Secretaría general
Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Doña NAGORE SARASOLA OTERMIN And.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretaria General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2024ko maiatzaren 28an izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, *(1.go puntua, aho batez eta 2., 3., eta 4. puntuak gehiengoz)*:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 28 de mayo de 2024, aprobó, *(el 1.er punto, por unanimidad y los puntos 2º, 3º y 4º, por mayoría)*, la siguiente Declaración Institucional:

**Erakunde Adierazpena, EAJ/PNV, EH BILDU, PSE-EE eta Elkarrekin Donostia taldeek aurkeztua, Rcky Myers kasuari buruzkoa.**

**Declaración Institucional, presentada por los Grupos EAJ/PNV, EH BILDU, PSE-EE y Elkarrekin Donostia, sobre el caso Rocky Myers.**

*"Rocky Myers, 62 urteko gizon beltz batek, 1994az geroztik darama Holman espetxeko heriotzaren korridorean, Alabamako estatuan, AEBtan. Pertsona zuriz ia erabat osatutako epaimahai batek hilketaren errudun deklaratu zuen, eta biziarteko espetxe zigorra ezarri zion, baldintzapeko askatasunik gabe. Epaileak erabaki hori baliogabetu zuen eta heriotza-zigorra ezarri zion. Gaur egun Alabaman heriotza-zigorra debekatuta dagoen arren, jada heriotza-zigorra jaso duten pertsonei ez zaie zigor hori aldatu, nahiz eta giza eskubideei buruzko nazioarteko arauek xedatzen duten zigor arinagoak txertatzen direnean, dagoeneko kondenatutako presoei lege-aldaketen onura eman behar zaiela.*

*Rocky Myersen kasuan, ez zegoen zigortu zuten erailketarekin zuzenean lotzen zuen frogarik. Biktimari lapurtutako bideo-grabagailu bat izan zen aurkitu zuten froga bakarra, eta Myersek adierazi zuen kalean abandonatuta topatu zuela. Rocky Myersen aurkako funtsezko lekukotzen inguruan inkoherentziak eta poliziaren presioa izan ziren nagusi. Gerora, lekukoetako batek atzera egin zuen, esandakoa ez zelako egia.*

*11 urterekin, Rocky Myersi desgaitasun intelektuala diagnostikatu zioten, eta denborarekin desgaitasun hori areagotu egin da. Zigorraren osteko apelazioetarako esleitu zioten abokatuak bere kasua utzi zuen aldez aurretik abisatu gabe,*

*"Rocky Myers, un hombre negro de 62 años, lleva en el corredor de la muerte de la prisión de Holman, en el estado de Alabama, Estados Unidos, desde el año 1994. Un juzgado casi exclusivamente blanco lo declaró culpable de asesinato y lo condenó a cadena perpetua sin posibilidad de libertad condicional. El juez anuló esta decisión y le impuso la pena de muerte, una práctica ahora prohibida en Alabama, donde las personas ya condenadas a muerte no se han beneficiado de esta nueva prohibición, a pesar de que las normas internacionales de derechos humanos conceden el beneficio de los cambios legislativos a los presos condenados cuando se introducen penas más leves.*

*Ninguna prueba relacionaba directamente a Rocky Myers con el asesinato por el que fue condenado, salvo una grabadora de vídeo robada a la víctima, que él afirma haber encontrado abandonada en la calle. Los testimonios clave en su contra se vieron empañados por incoherencias y acusaciones de presiones policiales, e incluso uno de ellos se retractó posteriormente de su testimonio por no ser cierto.*

*A los 11 años, Rocky Myers fue diagnosticado con una discapacidad intelectual, agravada con el paso del tiempo. El abogado que le asignaron para las apelaciones posteriores a la condena abandonó su caso sin previo aviso, lo que le hizo perder plazos*

10740n XVII

*eta horren ondorioz, apelazio judizialak egin ahal izateko funtsezko epeak galdu zituen Meyersek. Epaimahaiak, bere erabakia hartzeko, koefiziente intelektualeko probak erabili zituen batez ere. 2014an, AEBtako Auzitegi Gorenak proba horiek desegokitzat jo zituen. Era berean, Meyersek epea luzatzeko aurkeztutako eskabidea ezetsi zuen, desgaitasun intelektuala duen pertsona bat delako.*

*clave para las apelaciones judiciales. Los tribunales se basaron principalmente en pruebas de coeficiente intelectual, un estándar que el Tribunal Supremo de Estados Unidos consideró inadecuado en 2014, para rechazar su solicitud de ampliación de plazo presentada por tratarse de una persona con discapacidad intelectual.*

*Orain arte, Rocky Myersek bi exekuziori egin behar izan die aurre: bata 2004an eta bigarrena 2012an. Gaur egun, exekuzioa saihesteko aukera bakarra da Alabamako estatuko gobernadoreak barkamena ematea.*

*Hasta ahora, Rocky Myers se ha enfrentado a sendas ejecuciones en 2004 y 2012. Actualmente, la única posibilidad de evitar la ejecución es que la gobernadora del estado de Alabama le otorgue clemencia.*

*Azaldutako guztiagatik, udal talde sinatzaileek, Amnesty International erakundearen Donostiako taldeak hala eskatuta, honako hau aurkezten dute:*

*Por lo anteriormente expuesto, los grupos municipales firmantes, a petición del grupo donostiarra de la organización Amnistía Internacional, presentan la siguiente:*

*ERAKUNDE ADIERAZPENA*

*DECLARACIÓN INSTITUCIONAL*

*1. Donostiako Udalbatzak berretsi egin du heriotza-zigorrari modu irmo eta argian uko egiten diola, edozein herrialdetan eta inguruabarretan, eta adierazten du uste osoa duela giza eskubideekin bateraezina den praktika hori –heriotza zigorra, alegia– aplikatzen den leku guztietan indargabetu egin behar dela.*

*1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián se reafirma en su rechazo frontal a la pena de muerte, en cualquier país y circunstancia, y expresa su convicción de que esta práctica incompatible con los Derechos Humanos debe ser abolida en todos los lugares en los que se aplica.*

*2. Donostiako Udalbatzak Alabama estatuko gobernadore Kay Ellen Iveyri eskatzen dio barkaberatasunaren boterea erabil dezala Rocky Myersen aurkako kasuan egondako akatsak arintzeko. Era berean, eskatzen du Rocky Myersen kasua berrikusteko, bai eta heriotzara kondenatutako beste batzuena ere, antzeko arazoak dituztenenak barne, haien guztien heriotza-zigorrak kommutatzeko. Azkenik, adierazten du premiazkoa dela Alabamako estatuan exekuzio guztiak geldiaraztea eta horietan luzamendu bat ezartzea, era horretan, etorkizunean estatu horretan heriotza-zigorra indargabetzeko.*

*2. El Pleno del Ayuntamientro de Donostia / san Sebastián insta a la gobernadora del Estado de Alabama, Kay Ellen Ivey, a utilizar el poder de la clemencia para paliar los defectos del caso contra Rocky Myers. Igualmente, demanda que lleve a cabo una revisión del caso de Rocky Myers, así como de otros condenados a muerte, incluidos los afectados por problemas similares, con vistas a conmutar sus penas de muerte. Por último, urge a que detenga todas las ejecuciones en el estado de Alabama e instaure una moratoria en las mismas, de cara a una futura abolición de la pena capital en este estado.*

*3. Donostiako Udalbatzak Espainiako Gobernuari eskatzen dio, heriotza-zigorraren aurka hartutako konpromisoaren arabera, Alabamako Estatuko gobernadoreari eska diezaiola Erakunde Adierazpen honetako 2. puntuan jasotako jarduerak egin ditzala.*

*3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / san Sebastián insta al Gobierno de España a que, de acuerdo con su compromiso en contra de la pena de muerte, solicite a la gobernadora del Estado de Alabama que lleve a cabo las actuaciones recogidas en el punto nº 2 de la presente Declaración Institucional.*

*4. Donostiako Udalbatzak AEBtako enbaxadoreari*

*4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San*

*eskatzen dio beharrezko kudeaketak egin ditzala, alde batetik Rocky Myersen heriotza-zigorra deuseztatzeko eta bestetik, inpartzialtasun prozesaleko nazioarteko arauekin bat datorren eta legezko ordezkaritza egokia izango duen epaiketa berri bat bermatzeko". =======================================*

*Sebastián insta a la embajadora de Estados Unidos en España a realizar las gestiones necesarias para que se anule la condena a muerte de Rocky Myers y se le garantice un nuevo juicio conforme a las normas internacionales de imparcialidad procesal y en el que pueda contar con una representación legal adecuada". ================================*

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, sinaduraren egunean.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a la fecha de la firma.

**IDAZKARI NAGUSIA – LA SECRETARIA GENERAL**

**Nagore SARASOLA OTERMIN**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Nagore Sarasola Otermin (03/06/2024 14:15 CEST), Eneko Goia Laso (04/06/2024 09:14 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : 50IL-5SLN-2HEQ-DCNL